




ZUHAITZAK LANDATZEN ZITUEN GIZONA



DBH 1

FITXA TEKNIKOA

AUTOREA: Jean Giono

IZENBURUA: Zuhaitzak landatzen zituen gizona

ILUSTRATZAILEA: Mikel Mendibil

ITZULTZAILEA: Mikel Vilches

ARGITALTOKIA, ARGITALETXEA, URTEA: Berriozar: Denonartean, 2013

ORRIALDE KOPURUA: 50

ISBN: 978-84-15756-11-8

ADIN TARTEA: 12 urtetik aurrera

IRUZKINA

Biografia baten eran idatzita, narrazio liburu honek mendian bakarrik bizi den artzain baten bizitza kontatzen digu, mendizale baten ahotik. Artzainaren bizimoldea eta pentsamoldea goraipatu baino, artzainaren zaletasun handienari buruz hitz egiten digu mendizaleak: arbolak landatzea. Hasieran harriduraz, ondoren mirespenez eta azkenik konplizitatez, mendizaleak erakusten digu nola, gizaki bakarraren ekimenez, lur errea zen eremu zabal bat, eremu emankor bihurtzen den, landatu duen basoari esker.



Kontaketa hau biografia faltsu bat izanik ere, bere bidez jende askok hartu zuen basoak zaintzearen kontzientzia. Eta jende askoren laguntza jaso du, bai liburuaren zabalkundearen, bai itzulpeneari.

IKASLEEKIN LANDU DAITEZKEEN GAI PEDAGOGIKOAK

1.- Irakurketa ozena egin.

- 1.1.- Txandaka, egunero hamar minutuz irakurri liburua.
- 1.2.- Eguneko irakurle kopurua aldakorra izan daiteke.
 - OHARRA: irakurlea aukeratzea lan delikatua da. Beti ziurtatu behar da irakurleak gaitasuna duela, eta ez duela sufrutuko bere zereginean; baina, bestalde, parte-hartzaile kopuru ahalik eta handiena lortzea garrantzitsua da, talde lana sustatzearen.

2.- Mezua eztabaidatu.

- 2.1.- Liburuak bi aldarrikapen egiten ditu nagusiki:
 - 2.1.1.- Giza portaera eredugarria
 - 2.1.2.- Naturaren beharra bizitza atsegin eta asegarria izateko.
- 2.2.- Bi aldarrikapen hauek azalarazteko ariketaren bat bat egitea komeni da:
 - 2.2.1.- Adibidez, irakurketa klubetan egiten den antzera; lehenik argumentua birgogoratzen da: istorioaren puntu nagusiak esanaraziz, txandaka, taldekideei (guztiei?). Ondoren edukiak baloratzen dira: zer gustatu zaien gehiago; zer gutxiago; zer izan den sakonena; zer benetakoena; zer aspergarriena; zer izan den dibertigarriena;...
- 2.3.- Ondoren, irakurritakoaren eta benetako bizitzaren arteko konparaketa egitea eska daiteke. Hau izango da liburuaren aldarrikapenak mahai gainean jartzeko unea.

3.- Artzaintza tradizionala ezagutu

- 3.1.- Artzainen txabolak ezagutu,
 - 3.1.1.- Internet bidez. Adib, [hemen](#), [hemen](#),
 - 3.1.2.- Irteerak eginez. Adib, [hemen](#), [hemen](#)

4.- Hiru bertsioak parekatu. Liburuak euskaraz hiru itzulpen izan ditu:

- Liburuaren lehen itzulpena Elena Touyarou-Phagaburuk egin zuen 1990ean, *Utovie* argitaletxearentzat.
 - Testuaren beste itzulpen bat grabatu zen, Benito Lertxundiren ahotsarekin eta Paul Winter-en musikarekin 1993an, AEBn, Sonifolk, S.A. Soinuetxean.
 - Hirugarrena 2013koa, Mikel Mendibilena.
- 4.1.- Testu osoa baino pasarte esanguratsuak hautatu behar ditu dinamizatzaileak eta berauek eman erkaketa egiteko. Erkaketa honen bidez narrazioaren une esanguratsuenak azpimarra daitezke.
 - 4.1.1.- Esaterako, Basozainen buruari idatzi zion gutuna, liburuaren atarian dagoen huraxe, pasarte oso egokia da ariketa hau egiteko.



LIBURU GAZTEA 2014-2015



- 4.1.2 .- Era berean da interesgarria erkaketarako elkar nola ezagutzen duten erakusten duen pasarte;
- 4.1.3 .- Beste pasarte interesgarri batzuk: urte batzuen ondoren (1920an) itzultzen denekoa; jarraian 1933 eta 1935 urteetako notizia ematen duenekoa. Eta amaierako paragrafoak.

5 .- Eztabaida saioak antolatu:

- 5.1 .- Ekologia eraginkorra zer den.
- 5.2 .- Norberak egin dezakeena ingurunearen alde.
- 5.3 .- Ezer egiteak merezi ote duen.
- 5.4 .- ...